

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Dirulaguntzen deialdia, 2021eko programa eta jardueretarako

Asparreneko udalbatzak 2021eko otsailaren 4ko ohiko bilkuran hartutako erabaki baten bidez onartu ziren deialdiaren oinarriak udal honek 2021ean dirulaguntzak emateko, programa eta jardueretarako.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorrek 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, denek jakin dezaten eta interesdunek eskaerak aurkez ditzaten.

Deialdiaren oinarriak, Asparreneko Udalak 2021ean dirulaguntzak eta laguntzak emateko

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, lehiaketa bidez, honako arlo hauetan ekimena, programak eta jarduerak gauzatzen laguntzeko udalerrian: gizarte eta kultura, hezkuntza, musika, kirola, lankidetzeta, ingurumena eta inbertsio soziokulturalak eskuratzea, betiere udalaren jarduera osatuz, honela gauzatzen badira:

1. Asparreneko udalerrian gizarte eta kultura, hezkuntza, musika eta ingurumen programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak.
2. Dirulaguntzak Asparreneko udalerrian kirol programak eta jarduerak garatzeko.
3. Dirulaguntzak Asparreneko udalerrian egoitza duten elkarteek gizarte eta kultura inbertsioak eta/edo ekipamendua erosteko.
4. Dirulaguntzak kanpo lankidetzako programak edo jarduerak garatzeko.

Deialdiaren arauak dira: oinarri hauek eta dagokien udal ordenantza; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Asparreneko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzek ondoko arloekin zerikusia duten proiektuak eta jarduerak sustatzea dute helburu:

1. Gizarte eta kultura, hezkuntza, musika eta ingurumena sustatzeko programak eta/edo jarduerak:

- Arte prestakuntza eta sormena.
- Herriko talde artistiko amateurak laguntzea.
- Herritarrek parte hartzeko kultura jarduerak.
- Kultura zabalkundea: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak....
- Bisita kulturalak.
- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna.

- Genero indarkeriari aurrea hartzea.
- Gizarteratu eta kultura arteko elkarbizitza sustatzea.
- Gizartetik bazter geratzeko arriskua duten pertsonak gizarteratu eta horien partaidetza sustatzea.
- Adinekoak.
- Umeentzako eta/edo gazteentzako hezkuntza, eta aisia eta astialdia sustatu eta kudeatzea.
- Mendekotasunak prebenitzea.
- Hezkuntza, osasunerako eta ohitura osasungarriak sustatzeko.
- Etengabeko prestakuntza eta boluntarioritza sustatzea.
- Sentsibilizazioaren ingurukoak: ingurumena...

2. Kirola sustatzeko programak eta/edo jarduerak:

- Kirol jarduerak.
- Kirol ekitaldiak antolatzea eta egitea.
- Aparteko kirol ekitaldietara joatea.
- Oinarriko kirola sustatzea.
- Kirolarien joan-etorriak.

3. Gizarte eta kultura arloko inbertsioak erostea:

Gizarte eta kultura arloko legez eraturako elkarte eta taldeek material ez suntsigarria eta/edo ekipamendua erostea.

4. Kanpo lankidetzako programak eta/edo jarduerak:

• Gatazka eremuetan edo garatze bidean dauden herrialdeetan bizi diren adingabeak aldi baterako hartzea.

- Lankidetzara garatze bidean dauden herrialdeekin.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.
- Otordu gastuak, laguntzaile boluntarioei esker onez emandakoak izan ezik, jarduera gauzatzeko gastutzat hartzen baitira, bai eta jardueraren zati direnak eta/edo toki erakundeak berariaz onartuak ere.

• Elkaratearen barne funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak, ez eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere. Ezta elkaratearen web orria mantentzekoak ere, salbu eta toki erakundeak berariaz onartzen baditu.

- Udalak eskaintzen dituen pareko proiektuak, udalaren esku hartzearen osagarri izan ezean.
- Klubari edo elkaritari ezarritako zehapenen ondoriozko federazio gastuak.

2. artikulua. Pertsona eta entitate onuradunak

1. Pertsona eta entitate hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:

1. Irabazteko xederik gabeko elkarateak eta kirol klubak, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarateenean, edo kasuan kasuko araudian ezarritakoaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta hauen artean daudenak:

a) Egoitza eta esparrua udalerrian duten eta programak edo jarduerak egiten dituzten elkarateak eta kirol klubak.

b) Egoitza udalerrian ez duten elkarteak eta kirol klubak, udalerrian edo udalerrri inguruan gizarte, kultura, musika, hezkuntza edo ingurumen programei ekiten dietenak, bai udalerrian bazkide kopuru nabarmena dutelako, bai jardueran udalerriko lagun askok parte hartzen dutelako.

2. Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dirulaguntza ematea eragiten duten jarduerak egiten dituztenak.

2. Hauek ez dira onuradun izango:

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeretako batean daudenak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Hau da 2021erako aurrekontu zuzkidura:

a) Dirulaguntzak Asparreneko udalerrian gizarte eta kultura, hezkuntza, musika eta ingurumen programak eta jarduerak egiteko: 6.415,60 euro, 170.481.001, 231.481.001, 334.481.001 eta 3343.481.004 aurrekontu partidei dagozkienak.

b) Dirulaguntzak Asparreneko udalerrian kirol programak eta jarduerak egiteko: 2.601,00 euro, 341.481.001 aurrekontu partidari dagozkionak.

c) Dirulaguntzak kanpo lankidetzako, adingabeak hartzeko eta garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzako programak egiteko: 6.884,59 euro, 231.490.001 aurrekontu partidari dagozkionak.

d) Dirulaguntzak Asparreneko udalerrian egoitza duten elkarteek inbertsio eta/edo ekipamendu soziokulturalak erosteko: 520,20 euro, 334.782.002 aurrekontu partidari dagozkionak.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta aldeztatik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Udalaren dirulaguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketan beste batzuekin; dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, beste erakunde batzuen beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin izango du gainditu egindako jardueraren defizita.

Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu Asparreneko Udalaren 2021eko udal gastu aurrekontuan izendun partiden bidez diruz lagundu daitezkeen elkarteen programek.

4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta horiek emateko irizpideak

a) Zenbatekoak.

Zenbatekoak zehaztuko dira artikulua honetan xedatzen diren diruz laguntzeko moduko jardueretarako ezarritako mugen arabera, betiere kontuan izanik, programetarako laguntzei dagokienez, ez dela diruz lagunduko onartutako aurrekontuaren ehuneko 75 baino gehiago edo instrukzio organoak behar bezala justifikatutako defizitaren ehuneko 90 baino gehiago, eta inoiz ezingo dela dirulaguntza gisa eman elkarteak bere jarduera guztietarako duen urteko defizita baino gehiago.

Jardueraren zenbatekoa ezartzeko, lehenik oinarritzko tarte deituko dugun batean egingo da, eta gehieneko ehuneko aplikatuko da bakoitzerako dagoen partidaren arabera, nahiz eta ezingo duen izan aurreko idatz zatian ezarritakoa baino handiagoa. Edonola ere, beti egon beharko du, gutxienez, partiden guztirakoaren ehuneko 10eko gehienekoa arte irizpide espezifikoak aurkeztutako proiektuetako bakoitzari berariaz aplikatzeko.

Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko zaie jarduera guztiei. Txikitze hori oinarritzko tarte deiturikoan egingo da.

Jarduera lerroetakoren batean zuzkidura agortuko ez balitz nahiz eskaerarik aurkeztu ez delako nahiz bete beharreko baldintzak betetzen ez direlako, soberan geratu den kopurua besteren bati gehitu ahalko zaio, oinarri hauetako 7. artikuluan xedatzen den instrukzio organoak egiten duen proposamenaren arabera.

1. Gizarte eta kultura, hezkuntza, musika eta ingurumena sustatzeko programak eta/edo jarduerak:

Atal honetako ekimen guztietan: gehienez ere kostu lagungarriaren ehuneko 75.

Gurasoen elkarten kasuan, denbora esparrua "ikasturte" deiturikoa bada, hau da, "aurreko ekitaldiko irailetik urteko ekaina arte, dagokion dirulaguntza justifikatzeko tarte" onartu liteke, aurrez aipaturiko elkarteek hala eskatuz gero, dagokien dirulaguntzaren konturako aurrerakin bat ematea, muga izango duelarik aurreko urteko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 50 eta konpromisoa hartzen dutelarik deialdian, dagokion garaian, eskaera egiteko.

2. Kirola sustatzeko programak eta/edo jarduerak:

– Kirol jardueretarako programetarako laguntzak: gehienez ere, kostu lagungarriaren ehuneko 50, federazio gastuetarako (lizentziak...). Salbuespenez, haurren kirolaren kasuan, kostu lagungarriaren ehuneko 100 hartuko da kontuan atal honetan.

– Gainerako kirol programa eta jardueretan, eta jarduerak berak sortutako gastuengatik: gehienez ere kostu lagungarriaren ehuneko 75.

– Buruz buruko kirolak direla eta, profesionala ez bada, 500 euro izango da gehieneko dirulaguntza.

Kirol elkarten kasuan, denbora esparrua "denboraldia" deiturikoa bada, hau da, "aurreko ekitaldiko irailetik urteko ekaina arte, dagokion dirulaguntza justifikatzeko tarte" onartu liteke, aurrez aipaturiko kirol elkarteek hala eskatuz gero, dagokien dirulaguntzaren konturako aurrerakin bat ematea, muga izango duelarik aurreko urteko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 50 eta konpromisoa hartzen dutelarik deialdian, dagokion garaian, eskaera egiteko.

3. Gizarte eta kultura arloko inbertsioak erostea:

– Inbertsioak edo ekipamendua erosteko programetarako laguntzak: gehienez ere kostu lagungarriaren ehuneko 75.

4. Kanpo lankidetzako programak eta/edo jarduerak:

– Garatze bidean dauden herrialdeei laguntzeko programak: Gehienez, diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren % 75.

– Laguntzak adingabeen harrera edo aldi baterako egonaldi programetarako: gehienez, garraiatzeko gastuen ehuneko 100, muga 700 euro dela.

b) Emateko irizpideak.

Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak zehazteko irizpide orokor hauek baliatuko dira:

– Lehenetsuna izango dute udalerrian bertan egiten diren jarduerak, baldin eta gure idiosinkrasia soziokulturalaren berezitasunak berreskuratzea edo gordetzea badakarte: Gehienez 10 puntu.

– Kultura, ingurunea eta euskararen erabilaren normalizazioa zabaltzen laguntzen dutenak; hortaz, lehenetsuna izango dute euskara komunikazio hizkuntza modura erabiltzen duten programek eta jarduerak. Gehienez 10 puntu.

– Zeharka berdintasunarekin eta kultura arteko elkarbizitzarekin lotutako alderdiak sartzen dituztenak. Gehienez 10 puntu.

– Aplikazio esparrua: jarduerari atxikitako edo haren mesede hartzen duten udalerriko herri kopurua eta eraginpeko pertsona kopurua. Gehienez 10 puntu.

– Bereziki udalerriko kolektibo batzuek parte hartzea helburu duten programak eta/edo jarduerak. Esaterako, emakumeak, adinekoak, haurrak, beste kultura batzuetako pertsonak, gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak. Gehienez 10 puntu.

– Genero ikuspegia modu positiboan garatzen eta sustatzen dutenak. Gehienez 10 puntu.

Aipatutako irizpide orokorrez gain, berariazko irizpide bat finkatzen da, irabazteko xederik gabeko kirol elkarte edo klubei laguntzak emateko edo ez emateko aplikatuko dena; hauxe:

– Egoitza eta eremua udalerrian bakarrik duten kirol elkarte edo klubek egiten dituzten kirol jarduerak edo programek bermatu egin beharko dute, dirulaguntza jaso nahi badute, dirulaguntza gai den jardueran federatutako partaideen ehuneko 50 baino gehiago Asparreneko udalerrian errolatuta daudela.

Beste alde batetik, hizkuntza irizpideei dagokienez, Asparreneko Udalaren Euskara Planean jasotakoei, baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Klubak edo elkarteak ele bietan egingo du jardueraren (kartelak, liburuxkak, eskutitzak...) eskaintza.

2. Klubak edo elkarteak euskara eta gaztelania biak erabiliko ditu garatuko dituen ekimen eta jardueretan: aurkezpenak, megafonia...

3. Ume eta gazteentzako jardueretan lehentasuna emango zaio euskaraz egiten den jarduerari, salbuespena jarduera hori euskaraz ezin egitea.

4. Dirulaguntza eskatzean, klubak edo elkarteak jakinaraziko dizkio udalari zer jarduera antolatu nahi duen eta zer hizkuntzatan izango den. Eta dirulaguntza zurriztean, hauek jakinaraziko ditu: zer jarduera antolatu duen eta zer hizkuntzatan egin dituen. Horretarako, udalak egindako plantilla erabiliko du.

5. Dirulaguntza jasotzen duen elkarte edo klubak udalak hizkuntza normalizatzeko abian jartzen dituen ekimenetan parte hartuko du.

Euskara sustatzeko ardura duen dinamizatzailleak egingo du helburu horien jarraipena.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

- Eskaera ofiziala.

- Eskatzailearen NAN/AIZa eta elkartearen idazkariaren ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzailearen ordezkatze ahalmena, aurkeztutako datu guztiak egia direla eta elkartearen IFZ. (Nola eta eskatzailea ez den aurreko deialdiko pertsona bera).

- Elkarteak dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakia Udal bulegoetan eskura daiteke eredia.

- Estatutuen eta elkarte edo erakundeen dagokion erregistroan legez erata eta inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agirien kopia, baldin eta lehenengoz eskatu badute edo, udal erregistroan egon arren, estatutuak aldatu badituzte.

- Eskatzailea Gizarte Segurantzako betebeharretan eta zerga betebeharretan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. Halakorik ezean, zerga betebeharretan egunean dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena aurkeztu behar da. Udal bulegoetan eskura daiteke eredia. Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, egoki iritziz gero.

- Egindako proiektuaren azalpen memoria: parte hartzearen indizeak, lortutako emaitzen balorazioa, bertan sartuta jardueraren izaera inklusiboa, eta kideak bertan bazterketarik gabe hartu dutela parte, eta bereziki haurren jardueretan.

- Elkartearen gastu eta diru sarreraren balantze orokorra.
- Jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak edo udal ordenantzan jasotako agiriak.
- Fakturak betekizun hauek bete behar dituzte:
 - Fakturen datak diruz lagundutako aldikoak izatea.
 - Faktura egilearen eta hartzailearen izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
 - Hornitzailearen zigilua edo sinadura.
 - Fakturaren kontzeptua.
 - Prezioa (BEZa barne dagoen ala ez zehaztuta) eta PFEZaren atxikipena, hala badagokio.
- Langile gastuak badaude edo elkarrekin PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten baditu, egiaztatu beharko da atxikipenak ordaindu zaizkiola Foru Aldundiari, 190 ereduaren kopia bidaliz.
- Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio, erakunde edo entitate publikoren baten dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez adierazita. Beste dirulaguntzaren bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administraziok eman duen ere; hala-ber, datuak benetakoak diren egiaztatze agiria aurkeztu beharko da. Udal bulegoetan eskura daiteke eredia.
- Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituen, elkarrearen izenean, nola eta udalean aurrez jasota ez dagoen.
- Asparreneko Udalaren laguntza dela-eta egindako publizitatearen frogagiria.
- Ziurtagiria, Asparreneko Udalarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzekoa (Udalak emango du).

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Programa eta jarduerentzat, aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera; inolako eskaerarik ez da izapidetuko epe horretatik kanpo.

Agiriak Asparreneko Udalaren sarrera erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, edo legez onartuta dauden bideetatik.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, pertsona edo erakunde interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala, hamar egun balioduneko epean, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoarekin.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Instrukzio organoaren buru arlo bakoitzeko zinegotzi ordezkaria izango da, eta kidea Asparreneko Udalean arlo horretan lan egiten duen teknikaria, zeinek ofizioski egingo baitituzte ebazpen proposamena idazteko beharrezko jotzen diren zehazte, ezagutze eta egiaztatze jarduerak guztiak.

Zerbitzu teknikoek, aurkezten diren eskaerak azterturik eta egoki jotzen dituzten kasuetan, hitzordua jarriko diete elkarte eskatzaileei aurkeztutako programen gaineko azalpenak eman eta argitu ditzaten ezarritako irizpideak aplikatuz eskaerak balioestean sortu daitezkeen zalantzak, bai eta aurkeztutako jarduerak eta programen gainean sortzen direnak ere.

Zerbitzu teknikoek, behin proiektu eskatzaileetako bakoitzaren azalpena entzunda, txosten bat egingo dute, deialdian finkatutako irizpideak oinarri hartuta, ebaluazioaren emaitza eta, hala badagokio, haien arteko lehentasuna zehaztuz.

Behin-behineko ebazpen proposamen egingo du organo izapidegileak, behar bezala arrazoitua, espediente eta zerbitzu teknikoaren txostena ikusi ondoren.

Organo eskudunak, instrukzio organoak proposatuta, eman beharreko ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera ezetsi egin dela.

Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, eragindako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zein baldintzatan ematen den.

Dirulaguntza eman edo ezesteko ebazpena indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegi nagusietan, bat etorritik uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin, jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123 eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Bat etorritik azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutakoarekin, emandako dirulaguntzak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira, guztiek jakin ditzaten.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

– 2021eko abenduaren 14a baino lehen justifikatzea, hala badagokio, dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla, bai eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

– Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatze egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

– Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

– Egiaztatzea bete direla zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala auditatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legerian ezarritakoaren arabera.

– Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

– Jardueraren publizitatea egitean hau jarriko da: "Asparreneko Udalaren laguntzarekin / con la colaboración del Ayuntamiento de Asparrena", bai eta udalaren armarría ere.

– Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Asparreneko Udalak izapidean jarritako itzulketa edo zehapen prozesu oro bukatuta izatea.

9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin pertsona edo erakunde interesatuei jakinarazita behin betiko ebazpen proposamena, hogeita hamar eguneko epean ordainduko da lagundutako zenbatekoaren ehuneko 80. Gainerakoa, dirulaguntzaren egiaztagiria aurkeztu ondoren.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza baliogabetzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Asparreneko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan jaso ez denerako, hauek aplikatuko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Datu pertsonalak babestea

Bat etorritz Datu Pertsonalen Babeseko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearen otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Asparreneko Udalaren fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Asparreneko Udalaren datu pertsonalen fitxategien sorrera eta aldaketa arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Asparreneko Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetara aurkeztu diren pertsonak baimena ematen diote Asparreneko Udalari egiazta ditzan beste organismo publiko batzuetan aurkeztutako agirietan emandako datuak.

Araia, 2021eko otsailaren 8a

Behin-behineko alkatea

INMACULADA ALBIZU FUENTES